

Asisko gutuna

2020ko otsaila

4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi

136. zenbakia

Frantzisko Aita Santuak gogoratu berri digu ez garela bakarrik salbatzen baizik elkarrekin. Izan ere Jainkoak seme-alaba bezala maite gaitu, baina ez bakarka baizik senidetasunean. Eta horregatik galdetzen digu Kaini bezala: “Non da zure anaia? Jesusek berak gogoratu zigun “Hauetako bati egina, Neuri egin zenidaten”.

Gogoetarako gaia

Elkarrekikotasuna

Berdintasunaren kulturen bizi gara, teorian gutxienez. Egia esan, berdintasun absolutua ez da inoiz gertatzen baina horretara garamatzen guztia asko balioesten dugu; ez dezala inork abantailaz jokatu. Hau batez ere eremu sozialean bizi dugu. Berdintasunak, ordea, familia barnean edo lagunartean edo elkartean era ezberdinak hartzen ditu. Ez dugu lehenesten beste guztiaren gainetik berdintasun inpartzial hotz bat, ezberdintasun sozial guztiak orekatzeari bilatzen duenik, ez. Bilatzen duguna da beste guztiaren gainetik harreman pertsonalak jartzea, hori baita, egiaz, bizia ematen diguna.

Horrela, berdintasunak elkarrekikotasun era hartzen du. Etenik gabe hartu eta eman, eman eta hartu egiten den erlazio modua da hau, eskatu eta eskertu jasotakoa. Norbera dena jokoan jartzen den erlazioa, ez dudana. Eta erlazio honek garbi jokatze ariketa eskatzen du, bihotz-berrituz joate bat.

Elkarrekikotasuna mehatxatzen duten arriskuak asko dira: erresumina, norberaren interesari soilik jarraitzea, lehia, norberaren izen ona zaindu beharra... Oso erraza da konparaketetan erortzea, marmarrean, arrazoia izatea bilatzean, eskubideak aldarrikatzean... harremana bera gutxietsiz. Bada baita bestelako arrisku bat ere: batzuk beti garaile suertatzea, besteak, onak, beti menpeko eginez, beraien buruari uko eginez.

Elkarrekikotasun honek inolaz falta ezin den osagai bat du: maitasuna, norberaz ahazten den maitasuna, isilik egoten, zaintzen dakien maitasuna; irauten, eskertzen, anaiari edo arrebari ulertzen dakien maitasuna. Maitasun horrek badaki baita hitz egiten, beharrak apalki azaltzen eta eskatzen. Maitasun hori zirkularra da, elkarrekikoa.

Bibliako pasartea: Ef 4,25-32

Bazter ezazue, beraz, gezurra eta esan egia nork bere lagun hurkoari, guztiok elkarren atal baikara. Haserretzen bazarete ere, ez heldu bekatu egiteraino; zuen haserreak ez beza eguzkia sartu arte iraun. Ez eman inolako aukerarik deabruari. Lapur denak ez dezala aurrerantzean ostu, saia dadila baizik bere eskuz lan egiten, beharrean dagoenari zer eman edukitzeko. Ez bedi atera zuen ahotik hitz zakarrik, baizik eta, zerbait esan behar baduzue, ona eta egokia eta entzun dezatenen onerako izan dadila.

Ez nahigabetu Jainkoaren Espiritu Santua, horrekin markatu baitzaituzte Jainkoak zigiluz bezala, askapen-egunean zuek bereizteko. Ez bedi izan zuen artean zakarkeriarik, ez haserretzerik, ez gorrotorik, ez garrasirik, ez irainik, ezta inolako gaiztakeriarik ere. Izan zaitezte elkarrentzat on eta bihozbera, elkarri barkatuz, Jainkoak Kristoren bitartez barkatu dizuen bezala.

Frantziskotar espiritualtasuna

Gorde bitez anaia guztiak inoren izena belztetik eta hizka-mizkan ibiltzetik; bestela baizik, saia bitez isilik egoten, Jainkoak horretarako grazia ematen dielarik. Ez bezate elkarrekin, ez besterekin, sesiorik izan, baizik eta ahalegin bitez apalki erantzuten: Morroi ezerez bat naiz. Eta ez bitez haserre, zeren senidearekin haserretzen dena, kondenatua izango da; bere anaia iraintzen duena, biltzar nagusian kondenatua izango da, eta hitzez mintzen duena, infernuko sutara kondenatua izango da.

Eta maita bezate elkar, Jaunak dioen bezala: Hau da nire agindua: maita dezazuela elkarrik maite zaituztedan bezala. Eta obraz erakuts bezate elkarri dioten maitasuna, Apostoluak dioenez: Ez dezagun hitzez eta ahoz maita, egitez eta egiaz baizik. Ez bezate inor irain. Ez bezate marmar egin, ez besterengatik gaizki esan, idatzia baitago: marmartiak eta gaizki esaleak Jainkoaren etsai dira. Izan bitez bihozbera, gizaki guztientzat otzantasunez beteak. Ez bezate inor juzga, ez inor kondena! Eta, Jaunak dioen bezala, ez bitez egon besteren bekaturik txikienei begira, baizik eta hausnar bitzate berenak barruko saminaren saminez. Eta saia bitez ate estutik sartzen, Jaunak baitio: Bai estua dela bizirako atea eta meharra bidea, eta gutxi dira aurkitzen dutenak (1Er 11).

Otoitza

Bai eder dela, bai gozo, senideak elkarturik bizitzea!
Gantzuketako olio bikaina bezala da,
buruan isuri eta bizarrean behera,
Aaronen bizarrean behera,
soinekoraino jaisten den olio lurrintsua bezala;
Sion mendira jaisten den ihintza bezala,
Hermon mendian bezain ugari .
Sionen ematen du Jaunak bedeinkazioa: bizia betiko!

133. salmoa

Gutuneko azken hitzak

"Harremana ez dago ez zure esku ez nire esku, bion arteko misterioan baizik. Elkarrekiko mugimenduan." (Sor Emanuelle)

2020ko otsaileko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate otsaileko erreferentzia guztiak

1 Mk 4, 35-41	8 Mk 6, 30-34	15 Mk 8, 1-10	22 Mk 9, 2-13	29 Lk 5, 27-32
2 Lk 2, 22-40	9 Mt 5,13-16	16 Mt 5, 17-37	23 Mt 5, 38-48	
3 Mk 5,1-20	10 Mk 6, 53-56	17 Mk 8, 11-13	24 Mk 9, 14-29	
4 Mk 5,21-43	11 Mk 7, 1-13	18 Mk 8,14-21	25 Mk 9, 30-37	
5 Mk 6,1-6	12 Mk 7, 14 23	19 Mk 8, 22-26	26 Mt 6, 1-6.16-18	
6 Mk 6, 7-13	13 Mk 7, 24-30	20 Mk 8,27-33	27 Lk 9, 22-25	
7 Mk 6,14-29	14 Lk 10, 1-9	21 Mt 16,13-19	28 Mt 9, 14-15	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Otsailean elkarrekin
ospatuko dugun
otoitza 27an izango da
19:30tan